


ETXEBIZITZA BEHARREI ETA ESKAERARI BURUZKO INKESTA (EBEI) - 2019

EAEko 18 eta 44 urte bitarteko biztanleen % 13,5ek lehen etxebizitza eskuratzeko beharra du

68.423 etxebizitza nagusik birgaitze-lanak behar dituzte, eta 83.410 familiak etxebizitza aldatzeko beharra adierazi dute; zifra horiek Euskadiko etxebizitza nagusien % 7,7 eta % 9,3 dira, hurrenez hurren.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako 2019ko Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkestaren arabera, EAEko 18 eta 44 urte bitarteko biztanleriaren % 13,5ek (92.281 pertsonak) lehen etxebizitza eskuratzeko beharra du; adin-tarte horretako pertsonen % 60,9 emantzipatuta daude jada (415.285 pertsona). Etxebizitza eskuratzeko premia duten 92.281 pertsona horiek emantzipatu ez direnen % 34,6 dira, eta beren gurasoen, tutoreen edo beste senide batzuen etxebizitzetan bizi dira.

1. taula. Etxebizitza eskuratzeko, aldatzeko eta birgaitzeko beharra, lurralde historikoaren arabera. 2019

(Balio absolutuak eta portzentaje bertikalak)

| EAE-KO ETXEBIZITZA BEHARREI ETA ESKAERARI BURUZKO INKESTA | | 2019 | | 2015. urtearekiko aldakuntza | |
|---|----------------|---------|-------------------|------------------------------|-------|
| | | Kop. | Familia guztien % | GUZTIRA | % |
| EAE | Eskuratzea (1) | 53.447 | 6,0 | -2.084 | -3,8 |
| | Aldaketa | 83.410 | 9,3 | 7.440 | 9,8 |
| | Birgaikuntza | 68.423 | 7,7 | -7.863 | -10,3 |
| | Familiak | 893.800 | - | 6.057 | 0,7 |
| Araba | Eskuratzea (1) | 6.302 | 4,6 | -2.081 | -24,8 |
| | Aldaketa | 10.493 | 7,7 | -1.647 | -13,6 |
| | Birgaikuntza | 8.374 | 6,1 | -1.416 | -14,5 |
| | Familiak | 136.328 | - | 804 | 0,6 |
| Bizkaia | Eskuratzea (1) | 27.958 | 6,0 | -2.585 | -8,5 |
| | Aldaketa | 48.672 | 10,4 | 7.685 | 18,8 |
| | Birgaikuntza | 37.934 | 8,1 | -5.656 | -13,0 |
| | Familiak | 467.209 | - | 4.135 | 0,9 |
| Gipuzkoa | Eskuratzea (1) | 19.187 | 6,6 | 2.582 | 15,5 |
| | Aldaketa | 24.245 | 8,4 | 1.402 | 6,1 |
| | Birgaikuntza | 22.115 | 7,6 | -791 | -3,5 |
| | Familiak | 290.263 | - | 1.119 | 0,4 |

(1) Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta diru-sarrera edo errenta propioak dituzten 18 eta 44 urte arteko pertsonak soilik hartu dira kontuan.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkesta. 2019



Bestetik, era berean, inkesta horrek identifikatu du Euskadiko familien % 9,3k etxebizitza aldatzeko premia duela (83.410 familia); aldiz, familien % 7,7k (68.423 familia) adierazi du beren etxebizitzek 3.000 euro baino gehiagoko kostua duen birgaitze motaren bat behar dutela, bai eraikineko elementu komunetan, bai etxebizitzaren elementu propioetan.

18 eta 44 urte arteko 62.702 lagunek lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dute eta diru-sarrera edo errenta propioak dituzte; aitzitik, 27.579 lagunek, premia izan arren, ez dute diru-sarrera propiorik

2019an, diru-sarrera edo errenta propioak dituzten EAEko 18 eta 44 urte arteko 62.702 lagunek –alegia, adin-tarte horretako biztanleriaren % 9,5–, adierazi zuten etxebizitza bat eskuratzeko premia zutela. Etxebizitza eskuratzeko aurreikusitako modua aztertu ondoren, alegia, modu indibidualean edo bikotearekin erosiko den, EAE osoa kontuan hartuta, 2019an, 53.447 etxebizitza behar dira lehen etxebizitza eskuratzeko premia duten pertsonen erantzuteko. Zifra hori orain dela bi urte baino % 3,8 txikiagoa da.

Eskuratzeko premian ez balitz kontuan hartuko diru-sarrera propioak izateko baldintza, zifra hori 79.256 familiakoa izango litzateke, alegia, 25.809 familia gehiago izango lirateke, egun diru-sarrerarik ez duten pertsonen beharrak ere kontuan hartuta. Kasu horretan, premia duten pertsonak, guztira, 18 eta 44 urte arteko biztanleriaren % 13,5 izango lirateke, alegia, 92.281 lagun, eta horietatik 27.579k ez zuten diru-sarrera propiorik elkarrizketa egin zuten unean.

2. taula. Etxebizitza eskuratzeko beharra asetzeko zenbatetsitako etxebizitzaren kuantifikazioa, diru-sarrera edo errenta propio erabilgarrien eta lurralde historikoaren arabera. 2019

| Etxebizitza kopurua | | Diru-sarrera edo errenta propioen bat dutenak | | | Diru-sarrerarik gabe | Beharra dutenen guztizkoa |
|---|----------|---|--|------------------------------------|----------------------|---------------------------|
| | | Nahikoa diru-sarrera | Diru-sarrera gutxiegi edo ezegonkorrak | Diru-sarrerak dituztenen guztizkoa | | |
| Etxebizitza eskuratzeko beharra duten guztiak | EAE | 29.906 | 41.868 | 71.774 | 31.520 | 103.293 |
| | Araba | 4.021 | 4.383 | 8.404 | 4.903 | 13.307 |
| | Bizkaia | 17.263 | 20.903 | 38.166 | 17.604 | 55.770 |
| | Gipuzkoa | 8.622 | 16.581 | 25.204 | 9.013 | 34.216 |
| Emantzipatu gabeko 18 eta 44 urte arteko pertsonak | EAE | 19.255 | 34.192 | 53.447 | 25.809 | 79.256 |
| | Araba | 2.165 | 4.137 | 6.302 | 4.192 | 10.494 |
| | Bizkaia | 11.240 | 16.717 | 27.958 | 13.933 | 41.891 |
| | Gipuzkoa | 5.850 | 13.337 | 19.187 | 7.684 | 26.871 |
| 44 urtetik gorako emantzipatu gabeko pertsonak | | 5.791 | 2.897 | 8.688 | 980 | 9.667 |
| Beste egoera mota batzuk. Modu independentean eskuratzeko beharra | | 4.860 | 4.779 | 9.639 | 4.731 | 14.371 |

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkesta. 2019



Etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsona guztiak modu independentean kontuan hartuz gero, guztira 103.293 etxebizitza beharko lirateke EAEn.

2019an, etxebizitza eskuratzeko beharra zuten 120.532 pertsona identifikatu ziren guztira (86.970 pertsona, diru-sarrera edo errenta propioekin), eta 103.293 etxebizitza beharko zituzten guztira; horietatik 71.774 etxebizitza diru-sarrerak edo errenta propioak zituzten pertsonen edo familia-taldeen lotuta zeuden.

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten emantzipatu gabeko 18 eta 44 urte bitarteko 92.281 pertsonen gain, bi premia-tipologia identifikatu dira: alde batetik, 44 urtetik gorako 10.526 pertsona, etxebizitza eskuratzeko premian daudenak, gurasoen edo beste senide batzuen etxebizitzetan bizi direnak, 9.667 etxebizitza behar dituztenak (horietatik, 9.396 pertsonak diru-sarrera edo errenta propioak dituzte eta 8.688 etxebizitza behar dituzte), eta, bestetik, 14.371 etxebizitza, modu independentean edo osatzen duen familia-taldearekin bizitzeko (horietatik, 12.871 pertsonak diru-sarrera edo errenta propioak dituzte eta 9.639 etxebizitza behar dituzte).

18-44 urteko pertsona emantzipatu gabeen taldean, lehen etxebizitzaren eskariak beherakada izan du 2017tik 2019ra: % 24,8koa Araban eta % 8,5koa Bizkaian; aitzitik, Gipuzkoan gora egin du (+ % 15,5)

Diru-sarrerak dituzten 18 eta 44 urte arteko 33.089 bizkaitarrek 27.958 etxebizitza eskatu zituzten 2019an –2017an baino 2.585 gutxiago–; 24.065 gipuzkoarrek 19.187 etxebizitza eskatu zituzten –2.582 gehiago– eta lehen etxebizitza behar duten 7.548 arabarrek 6.302 etxebizitza eskatu zituzten 2019an, 2017an baino 2.081 gutxiago.


Lehen etxebizitza eskatzaileen % 45,7k alokairua aukeratzen dute

Lehen etxebizitza eskatzen duten 18 eta 44 urte arteko taldean, bost pertsonatik bik du nahiago jabetza, alegia, % 40,3k; aitzitik, % 45,7k alokairua du nahiago, eta gainerakoari, % 14,0ri, berdindio edukitza-erregimenak.

Eskatzaileen talde garrantzitsuen 25 eta 34 urte artekoa da –% 58,3 –; ondoren, 35 eta 44 urte artekoak dira, % 25,5arekin; eta gainerakoa, % 16,3a, adin gutxien duen taldearekin lotzen da, alegia, 18 eta 24 urte artekoekin.



1 Grafikoa. Premiazko lehen etxebizitzaren ezaugarriak eta emantzipatu gabeko 18 eta 44 urte bitarteko eskatzaileen profila (%).



(*) % 100era iristeko falta den gainerakoa talde honi dagokio: 'Ez daki-Ez du erantzun'.

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta

Etxebizitza aldatzeko beharra % 9,8 handitu da azken bi urteetan


Etxebizitza aldatzeko beharrak gora egiten jarraitzen du: 83.410 familiari eragiten die, 2017an baino 7.440 gehiagori, eta EAEko familien guztizkoaren % 9,3 da hori.

2019an etxebizitza aldatzeko beharra adierazi duten familien % 41,8k adierazi du ez duela aldatzeko behar objektiborik, baina epe laburrean/ertainean etxez aldatzea aztertzen ari dira. Gainerako % 58,2k adierazi du etxebizitzaz aldatzeko behar zuzena dutela.



Lurraldeka, bi portaera bereizten dira: alde batetik, Gipuzkoakoa eta Bizkaikoa, non premia duten familien erdia baino pixka bat gutxiago, alegia, familien % 43 inguru, etxebizitza aldatzea pentsatzen ari den, nahiz eta hori egiteko premia objektiborik ez izan (Gipuzkoan etxeen % 43,9 dira eta Bizkaian % 42,4); Araban, aldiz, etxebizitza aldatzeko premia objektiboa duten familiak dira nagusi. Premiadun familia horiek % 65,8 dira Araban.

2 Grafikoa. Aldatzeko beharra duten familien ehunekoa, beharraren araberako egoerari dagokionez. 2019




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta

Etxebizitza aldatzeko beharra duten familien artean, etxebizitzaren neurri desegokiak azaltzen du premiaren % 31,6; ondoren, etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzea da asmoa (% 14,4). Beste arrazoi garrantzitsu batzuk dira etxebizitzaren egoera txarra (% 11,4), etxebizitza jabetzan nahi izatea (%10,7) edo alokairu merkeagoa behar izatea (% 10,4); gainerako aukerak, berriz, % 10etik beherakoak dira.



3 Grafikoa. Aldatzeko beharra duten familien ehunekoak, beharrarekiko egoeraren arabera. EAE 2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta


Etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra % 10,3 gutxitu da azkeneko bi urteetan

Bestetik, etxebizitzan berrikuntza egiteko beharrak 68.423 etxe-titularri eragiten die, 2017an (76.286 familia) baino % 10,3 gutxiagori. 2019an erregistratutako zifra EAEko familien guztizkoaren % 7,7 da.

Etxebizitzek behar duten birgaitze-lanaren tipologiari dagokionez, batik bat (% 49,3) etxebizitza barneko hobekuntza-beharrei dagokio. % 25,1ek birgaitzea etxebizitza barruan eta eraikineko eremu komunetan egiteko beharra dute. Gainerako % 25,7a eraikineko eremu komunei soilik dagozkien birgaitze-ekintzei dagokie.



4 Grafikoa. Birgaitzeko beharra duten etxebizitza duten familiak, birgaitze motaren arabera. EAE 2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta

Informazio gehiago:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia
Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta
Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56
WEBGUNEA: www.euskadi.eus/estadisticas-vivienda
Helbide elektronikoa: estadistica-vivienda@euskadi.eus